

Ostirala, 2013/08/23

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data

2013

abuztua

22

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET



PORTUKO SAN JOAN TXIKI JAIK

Portu auzoan dena prest dute San Joan txiki jaietarako

Bi nobedade izango dira aurtengo festetan: kantu saioa larunbatean Kalez Kale Kantariko kideekin eta zaldi dema Paolla eta Azkonobietaren artean, igandean. Festak ostiralean hasiko dira, 12:00etan botako duten txupinazoarekin.

2013/08/20 - Asteartea

abuztuko azken asteburua berezia izaten da portu auzoan, san joan txiki jaiak ospatzeko hitzordua izaten baitute auzotarrek. ostiralean hasiko dira eta igandera bitartean, denentzako moduko egitaraua antolatu dute. aurten gainera, bi nobedaderekin: kalez kale kantarikoekin kantu saioa eta zaldi dema.

ume jokoak eta sardin jatea, ostiralean

umeentzako ekintzak antolatu dituzte, batez ere, aurreneko egunean. festen hasierako suziriak eztanda egin aurretik, marrazki eta pintura lehiaketa antolatu dute; eta umeen parkina ere zabalik egongo da, puzgarri, ohe elastiko eta bestelakoekin. arratsaldean ere, parkinaz gain, jokoak izango dituzte, ondo pasatzeko: zaku karrera, lokotxak... helduek ere izango dute festarako lekua ostiralean: lorontzi lehiaketa, sardin jatea eta kontzertuak antolatu dituzte.

asto karrera, kantaldia, pailazoak... larunbatean

larunbata izango da festetako egun nagusietako bat. asto karrera antolatu dute arratsaldean, portuko festetako identitate bihurtu den ekitaldietako bat. eta gauean, aurtengo nobedadeetako bat: kalez kale kantariko kideekin kantu saioa; afalostean egingo dute eta letrak pantaila haundi batean jarriko dituzte.

sagardo dastaketa eta dema, igandeko plana

festetako azkeneko eguna izango bada ere, igandea ere ekitaldiz gainezka dator. eguerdian tradizioa bihurtu den sagardo lehiaketa antolatu dute. eta arratsaldean, aurtengo beste nobedadea: zaldi dema paolla eta azkonobietaren artean.

abuztuak 23, ostirala

10:00, marrazki eta pintura lehiaketa.

11:00-13:30, haurren parkinga: puzgarriak, ohe elastikoak, parke txikia eta olla.

12:00, jaien hasiera suziriaren jaurtiketarekin. aldi berean, buruhaundi eta txistularien irteera auzoko txoko guztietan alaitasuna zabalduz.

13:00, auzoko gazteek egindako marrazkien erakusketa

16:00-19:00, haurren parkinga

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



DIKUSI



17:00, haur jolasak: zaku karrerak, aulki jokoa, lokobxak, ura eta irinaren jokoa, etab.

18:00, lorontzi lehiaketa

20:30, xxiii. sardin jate herrikoa.

23:00, kontzertu ikaragarria: the zepo. bh roja eta despervicio.

abuztuak 24, larunbata

08:00, egunsentia, suzieren jaurtiketarekin.

08:30, baratxuri zopa goiztiarrentzat.

11:30, haur jokoak: zaku karrerak, aulki jokoa, lokobxak, ura eta irinaren jokoa, etab.

13:00, zinta lasterketa izugarrizko opariekin. jarraian, tiro karabina txapelketa.

16:00, mus txapelketa shangai tabernan. ordu berean, esku lanak

18:00, lxii. asto lasterketa.

19:00, patxin eta potxin pailazoan ikuskizuna . jarraian, denak afaltzera, gauerako indarrak hartzeko.

00:00, kalez kale kantarikoekin euskal kantaldi herrikoa.

ondoren, dantzaldia laiotzekin.

abuztuak 25, igandea

08:00, egunsentia, suzieren jaurtiketarekin.

09:30, diana txistulariekin.

11:00, pelota partidu interesgarria: paul ojuel eñaut esnaolaren kontra.

12:00, meza auzoko hildakoen alde.

12:00, hernaniko bertso eskolako bertsolarien saioa.

12:30, sagardo lehiaketa. itxaso, maialen eta uxue trikitilariak alaituta. sagardotegi partehartzaileak: altzuetan, oialume-zar, olaizola, eula, akarregi, alberro, elorribi, iparragirre, artola, itsasburu, otsua-enea eta rufino.

13:00, xxxix. toka eta bote txapelketa.

14:30, bazkaria.

18:00, ainara dantza eskola eta dilshad dantza taldearen eskutik batuka, funky eta danza del vientre erakustaldia.

19:00, zaldi dema hernaniko imanolo paollaren zaldia, eta urnietako azkonobieta baserriko zaldiaren kontra, 800kiloko harriarekin.

jarraian, laketa taldearen dantzaldia.

00:00, jaien amaiera

laketa taldearekin. zezen suzkoa. azken traka.



Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali



**Axeri
bila 2013**
klik **hemen**



**Liburua
erosteko,**
klik **hemen**



Ibilbide Sarea:
Urruzuno

XII. AXERI BILA
EMAITZA GUZTIAK

Ibilbide Sarea:
Larregain

Ibilbide Sarea:
Oberan

Ibilbide Sarea:
Usokori bira

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8 -
Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen araudi
orokorra

Gehigarria: Hemen